



Monako idazkia bihoa bere tramitaratu
Sailera
Para el presente escrito al Negociado de
Secretaria
Rodriguez para su trámite
2016 MAY: 05
LASARTE-ORIA
IDAZKARI OROKORRAK

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTEI BURUZ LASARTE-ORIAKO EHBILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA

2011ko bukaeran, Eusko Jaurlaritzak gure Gizarte Zerbitzuen prestaziorik garrantzitsuenetako bat den Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) kobratu ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora igotzea erabaki zuen; zehazki, urtebete eskatetik hiru urte eskatzera pasatu zen. Horrek ekarri zuen, automatikoki, pertsona asko gure babes sistematik kanpo geratu zirela.

Murrizketa sozial horri aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2012ko uztailean, Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL) sortu zuen, non prestazioa jasotzeko eskatzen den erroldatze denbora urtebetekoa den; hain zuzen ere, DBE kobratzeko, urteetan eskatu izan den erroldatze denbora.

Beste modu batean esateko, DBE urteetan izan duen erroldatze denborara itzuliko balitz, DBL berez desagertu egingo litzateke, lehen zeukan estaldura soziala berreskuratuko lukeelako. Murrizketa murriztuko litzateke.

DBL izeneko prestazioak izaera unibertsala dauka, hau da, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago, berdin da nongoak diren, DBEekin beti gertatu izan den bezalaxe.

Gogoratu behar da DBLa Gipuzkoan bizi diren 1.422 familia unitatek jasotzen dutela eta familia horietan 700 ume daudela, legez babestu beharrekoak.

Foru Gobernu berriak hasieratik jarri nahi izan du zalantzan DBLa eta azkenean, apirilaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera, kendu egingo ditu. Horren aurrean eta erabakia bera justifikatzeko erabilitako argudioei dagokionean ("erakartze efektua" aipatuz), gipuzkoako jendarteari zuzendutako mezuak jarrera xenofoboak sustatzen dituela uste dugu. Hori hala, eta insitutzio publikoetatik mezu xenofoboak desagerrarazi eta elkarbizitzarako mezuak eta praktikak landu behar direla ulertuta, adierazpen insituzional hau aurkezten dugu, kargu publiko den orok konpromisoa hartuaz elkarbizitzarako balioak sustatu eta jarrera xenofoboak bultzatu ditzaketen adierazpenik ez egiteko.